* David Oteguik (Enpresa Batzordeko burua) adierazi du alkate jaunak dioen moduan, produktibitateko ordainsaria emateak ez duela kentzen lanpostuen balorazioa egitea, berak dio lanpostuen balorazio batek ez duela beste balorazio bat kentzen. Ez zaio iruditzen bateraezinak direnik, eta proposamena ere ez. Guztiek dakite mikrofonoa irekita dagoela gauza batzuk ezin direla esan, eta beste kontu bat da primeran ulertzen dela zer proposatzen den eta jada komentatu dutela Lehendakaritzako Batzordean. Alkate jaunak esan du Komiteak ez duela proposamenik egin lanpostuen balorazioaren gainean, eta hori ez da egia, Batzordearen egunean bertan egin zioten proposamena, Pertsonaleko buruari helarazi nahi izan zioten, baina ez zegoen. Beren proposamena zen balorazio bat egitea emaitza aurrez adostuta. Horretarako ez da hainbeste denbora edo hainbeste kontu behar, eta ez du eragozten beste balorazio bat egiterik, gobernu-taldeak egin nahi duen hori; azken horretarako denbora asko behar da, batez ere ez badago adostasunik, langileen babesik gabe egiten ari badira, eta gauzak horrela egitea ez zaie gustatzen, ez baitu ez neurririk ez kontrolik. Nahi dutena egiten ari dira eta horregatik dituzte arazoak, langileek ez baitute balorazio horretan parte hartu nahi. Horregatik doa hain astiro, 2030ean amai liteke eta pertsona berak egongo dira, edo ez, baina gauza bera gertatuko da hemendik bi hilabetera.

* Interviene el Sr. David Otegui, Presidente del Comité de Empresa manifestando que tal y como dice el Sr. Alcalde que una paga de productividad no elimina la valoración de puestos de trabajo, él dice que una valoración de puestos de trabajo no elimina otra valoración de puestos de trabajo. No cree que sea incompatible una cosa con otra ni tampoco la propuesta. Todos saben que a micrófono abierto hay cosas que no se pueden decir y otra cosa es que se entiende perfectamente qué es lo que se propone y que ya lo han comentado en la Comisión de Presidencia. Dice el Sr. Alcalde que no hay propuesta del Comité sobre la valoración de puestos de trabajo y eso no es así, la tiene y se la hicieron el día que se celebró la Comisión, se la quisieron trasladar a la Jefa de Personal pero no estaba. Su propuesta se basaba en una valoración de puestos de trabajo pactado el final. Esto no lleva ni tanto tiempo ni tanto cuento, esto no va en contra de hacer otra valoración que es la que está pretendiendo hacer el Equipo de Gobierno y que ésta sí que lleva mucho tiempo, sobretodo cuando no se tienen consensos porque se está llevando a cabo unilateralmente sin contar con los trabajadores y esa forma de hacer las cosas no les gusta porque no tiene medida ni control. Están haciendo lo que quieren y de hecho se encuentran con problemas porque los trabajadores se están negando a colaborar en esta valoración de puestos de trabajo. Ésta es la razón por la que va lenta, podría acabar en el año 2030 y puede o no que estén las mismas personas, pero lo mismo pasará dentro

Alderdi politikoek konpromisoa hartzen badute, eta ez

de dos meses. Si de esto sale un compromiso de

udalbatzak, balorazio hori eskatu bezala egingo dela, ez dago zertan orain onartu, alderdi politikoak berdinak izango direlako, edo besteren bat gehituta, baina aurrerago atera daiteke. Inongo momentutan ez dute onartu gobernu-taldearen proposamena, esan zietenetik ez zela soldatan finko geratuko. Diru hori orain emango da eta gero ikusiko dugu, diru bat gastatuko dute eta gero zakarretara joango da, hurrengo urtean 2009ko erosteko ahalmen bera izango baitute, 2010eko murrizketen aurrekoa. Orain emango da baina ez da soldatan finkatuko, langileek ez dute presarik datorren urtean egongo ez den diru bat gastatzeko. Nahiago dute diru hori soldatan finkatzea eta datorren urtean, negoziatzen jartzean, erosteko ahalmen horren zati bat berreskuratuta izango dute. Alkate jaunak dio diru hori orain emango dutela eta zorraren gainerakoa komitearekin negoziatuko dutela, ez badago dirurik, nola negoziatuko du? Ez du dirurik, ez du orain emango eta gainera dio ekainean partida amaituko dela. Noiz negoziatuko du langileekin nola berreskuratu erosteko ahalmen hori? falta diren bileretan formula magikorik aurkitzen ez badute zenbateko horri gainerakoa gehitzeko. Esatea ezin izango dutela diru hori ukitu ez dagoelako baloraziorik, izango da ez dagoelako horretarako borondate politikorik. Borondate politikoa badute, egin ahal izango dute orain, geroago edo nahi dutenean. Beraiek planteatzen duten balorazioa eta Pertsonaleko buruak planteatzen duena ez daude kontrajarrita, baina azkenak akats bat du, ez da partekatua eta horregatik ez du funtzionatzen, nahi dutena egingo baitute. Alkateak badaki langileek zer balorazio planteatzen duten, baina badaki mikrofonoan ezin dela planteatu.

los Partidos Políticos, no de la Corporación, estableciendo que se va a realizar esa valoración como se solicitó, no hace falta que se apruebe ahora porque los Partidos Políticos van a ser los mismos o algún otro más, esto se puede sacar más adelante. En ningún momento han admitido la propuesta del Equipo de Gobierno y esto desde el momento en que se les dijo que no se podía quedar fijo en el salario. Esto es un dinero que se da ahora y luego Dios dirá, se va a gastar un dinero que luego va a ir a la basura porque el año que viene van a tener el mismo poder adquisitivo que tenían en el 2009, antes del recorte del 2010. Esto se da ahora pero no se asienta en el salario, ningún trabajador tiene prisa en que se gaste un dinero que el año que viene ya no existe. Es preferible que ese dinero se asiente en el salario y el año que viene a la hora de negociar habrán recuperado parte de ese poder adquisitivo. El Sr. Alcalde dice que ese dinero lo dan ahora y el resto de la deuda la negociarán con el Comité, si no hay dinero ¿cómo va a negociar?. No tiene el dinero, no lo va a dar ahora y además dice que en junio se acaba la partida. ¿Cuándo va a negociar con los trabajadores para recuperar ese poder adquisitivo?, a no ser que en las reuniones que faltan lleguen a una fórmula mágica para añadir a esta cantidad el resto que falta. Decir que no van a tener acceso a ese dinero porque no hay una valoración, será porque no hay voluntad política para hacerlo. Si existe esa voluntad política se podrá hacer, ahora, más tarde o cuando les de la gana. La valoración que plantean no está reñida con la que plantea la Jefa de Personal, la cuál tiene un defecto, no es compartida y por eso no funciona, se va a hacer lo que se quiera. La valoración que plantean los trabajadores, el Alcalde ya sabe cuál es pero también sabe que no se puede plantear en el micrófono.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du, jendea

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando

lasai gera dadin, berak ez duela inolako asmorik 2030ean Udalean jarraitzeko; baten bat lasai geratuko da. Oraindik ere ez du ulertzen planteamendua, Negoziazio-Mahaian sindikatuak eta gobernu-taldea daude. Mahaian oraindik ez dute horretaz hitz egin. Proposamen bat egin dute, eztabaida osoko bilkurara eraman da, negoziazio-esparrua Negoziazio-Mahai orokorra da, logikoena izango litzateke saiatzea Mahaian lortzen akordioa, eta ez osoko bilkuran jorratzea. Harrituta dago gauza batzuetan ados daudelako eta beste batzuetan ez. Ulertzen du proposamenarekin ados zeudela baina arduratuta zeudela etorkizunerako nola finkatu, eta hainbatetan esan dute prest daudela hori lortzeko beharrezko formulak bilatzeko. Bere taldearen konpromisoa mahai gainean dago, publikoa da, lanpostuen balorazioa egiteko konpromisoa hartu dute -sindikatuko ordezkariak aipatutako alderdietan-, baina kontraesana da: alde batetik, esaten dute gobernu-taldeak arazoak dituela balorazioa egiteko, baina beste kasuan ez da arazorik egongo, bitxia da. Nola daki ordezkariak ez dela arazorik egongo? Orain planteatzen dutena da egoera bat konpontzea eta erantzukizuna beren gain hartzea. Ez du ulertzen patronalak langileei proposamen bat egitea zerbait ziurra izan dezaten, eta ez onartzea. Negoziazioan sartu nahi badute, kontuan izan behar da bi hilabete falta direla hauteskundeetarako, udalbatza berria osatu behar da, mahai orokorrerako solaskide berriak izendatu; gero abuztua dator eta negoziazioa irailean edo urrian hasiko da. Bere proposamena egina dago, konpromiso bat hartu zuten eta bere taldeak konpromiso hori bete nahi du; horrek ez du esan nahi lanpostuen balorazioa egingo ez denik.

que para que la gente se quede tranquila en el 2030 no tienen ninguna intención de continuar en el Ayuntamiento o al menos él, alguno así podrá descansar tranquilo. Sigue sin entender el planteamiento, hay una Mesa de Negociación en la que están los sindicatos y el Equipo de Gobierno. En esa Mesa todavía no se ha llegado a hablar de esto. Han hecho una propuesta, ese debate se traslada al Pleno, el Marco de Negociación es la Mesa General de Negociación, lo lógico sería intentar llegar a un acuerdo en esa Mesa en vez de tratarlo en un Pleno. Le sorprende también que hay cosas con las que se está de acuerdo y otras con las que no. Entiende que con la propuesta estaban de acuerdo pero preocupaba que el salario de cara al futuro quedara garantizado y esto lo han dicho por activa y por pasiva que están dispuestos a buscar las fórmulas necesarias para que  se consiga. El compromiso de su Grupo está encima de la mesa, es público, se han comprometido a hacer la valoración de puestos de trabajo incluso en los aspectos que menciona el delegado sindical pero esto es contradictorio, por una parte se dice que el Equipo de Gobierno tiene problemas para hacer su valoración pero no van a existir en el otro caso, es curioso. ¿Cómo sabe el Delegado que no van a existir problemas?. En estos momentos lo que plantean es solventar una situación y asumir una responsabilidad. No entiende que cuando la patronal plantea a los trabajadores y trabajadoras una propuesta para que de alguna manera puedan tener algo seguro, se deshecha. Si lo que se quiere es entrar en la negociación, hay que tener en cuenta que faltan dos meses para las elecciones, hay que constituir la nueva Corporación, nombrar una nueva interlocución en la Mesa General, luego llega agosto y la negociación se va a situar entre septiembre u octubre. Su propuesta ya se ha hecho, adquirieron un compromiso y su Grupo quiere



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

cumplir con ese compromiso, esto no quita para hacer la valoración de puestos de trabajo.

* David Otegui jaunak adierazi du beraiek ez dutela negoziazioaren gaia gai-zerrendara ekarri, alkate jaunak ekarri duela. Osoko bilkurara jo du hemen erabakitzeko organo bat ezarri delako erabaki hori adostuta hartu aurretik. Osoko bilkurara jo du saiatzeko erabaki hori ez dadin aurrera atera. Ez zaio iruditzen hau denik dirua banatzeko modu egokia, nahi du balorazioa bi aldeen artean egitea eta bozkatuta parte hartzeko aukera izatea, zer nahi duten eta zer ez duten nahi esan ahal izatea. Iruditzen zaio demokratikoagoki egiten denak aurrera ateratzeko aukera handiagoa duela; bi urte daramatzate balorazioa aurrera ateratzen saiatzen, ez dute lortu eta ez dute lortuko, ez baitituzte langileak engainatuko balorazioa horrela eginda. Alkate jaunak badaki zer balorazioz ari den, 450.000 euro horiek produktibitate-osagarrirako erabili eta hurrengo urterako falta badira, errenta-aitorpena egiteko bestetarako ez dute balioko. Eskatzen dute diru hori soldatan gelditzea, finkatuta geratzea. Beraiek aukera hori proposatu dute eta badirudi arazo bakarra ekaina dela, hauteskundeen ondoren dirudienez ezingo baita ezer egin. Borondate politikoa badu, BILDUk konpromisoa har dezake esateko hurrengo legegintzaldian dauden lekuan daudela ere, agintean edo oposizioan, diru hori soldatan finkatuta langileei banatzeko asmoari eutsiko diola. Ez diru hori bakarrik, langileei bidegabeki kendu dieten gainerakoa ere bai. Dagoen lekuan dagoela ere langileak defenda ditzala.

*Interviene el Sr. David Otegui manifestando que ellos no han traído el tema de la negociación al Orden del Día, lo ha traído el Sr. Alcalde. Acude al Pleno porque aquí se ha establecido un órgano de decisión antes de que esta decisión se tome de forma consensuada. Él acude al Pleno para intentar que esta decisión no salga adelante. No cree que ésta es la forma adecuada de repartir el dinero, quiere que la valoración se haga de forma bilateral y que se pueda participar votando, diciendo lo que se quiere y lo que no. Cree que lo que se hace más democráticamente tiene más posibilidades de salir, llevan dos años intentando que esta valoración salga adelante, no lo han conseguido y no lo van a conseguir porque no van a engañar a los trabajadores con esa manera de hacer la valoración. El Sr. Alcalde sabe bien de qué valoración le está hablando, esa en la que en vez del complemento de productividad para el que dispone de 450.000 euros que no quedan asentados en el salario, el año siguiente siguen faltando, sólo van a servir para hacer la declaración de hacienda. Solicitan que ese dinero quede en un apartado del salario que se quede fijo. Ellos han propuesto esta opción y parece que el único problema es junio ya que después de las elecciones parece que no se va a poder hacer. Si hay voluntad política se puede adquirir un compromiso como BILDU para decir que estén donde estén la próxima legislatura, mandando o en la oposición van a seguir con la idea de repartir ese dinero para los trabajadores de manera que se quede asentado. No sólo este dinero sino el resto que se les ha quitado a los trabajadores injustamente. Esté donde esté defienda a los trabajadores.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du ados

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dagoela, baina gauza batek ez duela bestea kentzen; momentuz bere aukera garantista da langile guztientzat. Hori egiteko konpromisoa hartzen du, helburu bera dute, formula aurkitu behar da. Desberdintasun bakarra da dirua orain banatzea edo sindikatuko ordezkariak esaten duen bezala aurreragorako uztea.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du ez dela proposatutakoa ez zaiela gustatzen, baina orain bermatzen den gauza bakarra dela osoko bilkurak baimena ematen duela produktibitate-osagarria emateko. Zalantzan jartzen da negoziazio-mahaiko negoziazioak edo lanpostuen balorazioak adostasuna izango duen, baina ez du zalantzan jartzen osagarri hau banatzeko ereduaren negoziazioa, horixe soilik baimentzen baita. Ulertzen du gobernu-taldeak konpromisoak bete nahi izatea, baina iruditzen zaio konpromisoa lehenago hartu behar zutela edo azkarrago ibili behar zutela. Bere taldea ez dago ados aldiekin eta planteamendua langileentzako garantista ez izatearekin, langileentzako garantistena baita lanpostuen balorazioa egiteko erabakia hartzea udalbatzak. Bi hilabete daude pauso kualitatibo bat emateko, legegintzaldia amaitu aurretik bi hilabete daude udalbatzak finka ditzan balorazio hori egiteko irizpideak. Ez litzateke gaizki egongo legegintzaldi honi akordio horrekin ematea amaiera, gero etortzen dena etortzen dela ere bere talde politikoak errespetatuko duen akordioa izango baita; eta iruditzen zaio osoko bilkurako erabakia denez, gainerako taldeek errespetatuko dutela. Ezin da nahastu soldata nola ordaindu behar den erabakitzeko lanpostuen balorazio bat egitea langileentzako garantista izatea edo betirako atzeratu behar den zerbait izatea. Borondatea badago, irizpideak azkar finkatzen dira, ez du uste denbora gehiago beharko dutenik talde politiko guztien artean irizpideak finkatzeko, banaketarako irizpideak

que está de acuerdo pero que una cosa no quita la otra, de momento su opción es garantista para los trabajadores. Asume el compromiso de hacerlo, buscan el mismo objetivo, hay que buscar la fórmula. La única diferencia está en hacer efectivo el dinero en este momento o esperar más adelante como dice el enlace sindical.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV), manifestando que lo propuesto no es que no guste, lo único que se garantiza ahora es que este Pleno autoriza a dar un complemento de productividad. Se pone en solfa el éxito de una negociación en una Mesa de Negociación, o el éxito de una valoración de puestos de trabajo en lo que a consensuar se refiere, pero no se pone en solfa la negociación del modelo de reparto de este complemento que es lo único que se autoriza. Entiende que el Equipo de Gobierno quiera cumplir los compromisos, pero cree que el compromiso tendría que haber sido adquirido con anterioridad o habría que haber pisado un poco más el acelerador. Su Grupo no está de acuerdo con las etapas y con que no sea garantista para los trabajadores el planteamiento que se hace, porque no hay nada más garantista para los trabajadores que la Corporación acuerde la realización de una valoración de puestos de trabajo. Hay dos meses de plazo en los cuales se puede dar un paso cualitativo, dos meses antes de terminar la legislatura, esta Corporación puede fijar los criterios para hacer esa valoración. No estaría mal poner el broche a la legislatura con ese acuerdo, luego venga quien venga será un acuerdo que su Grupo Político respetará como entiende que respetarán todos al ser un acuerdo plenario. No se puede confundir que hacer una valoración de puestos de trabajo para determinar como hay que abonar el salario, sea algo que no sea garantista para los trabajadores, ni algo que se tenga que postergar para la eternidad. Si hay voluntad, los criterios se fijan

sindikatuekin soilik finkatzeko baino.

rápidamente, no cree que tarden más en fijar los criterios entre todos los Grupos Políticos que visto lo visto fijar los criterios para el reparto sólo con la parte sindical.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) berriro dio ez dagoela eragozpenik lanpostuen balorazioa egiteko; inork ez du ezetzik esan. Guztiak gonbidatzen ditu konpromiso hori hartzera, baina baita ere eskatzen du ez oztoporik jartzeko bere proposamena aurrera eramateko. Lanpostuen balorazioa egiteak atzerapena suposatuko luke eta epeak jarrita daude, errealista izan behar da, eta gauza batek ez du bestea kentzen. Bere taldeak proposamena mantenduko du, koherenteena iruditzen zaielako, eta EAJko bozeramaileari galdetu nahi dio bere proposamenean kontuan izan dituen Gizarte Segurantzako kostuak edo ez, egoera oso desberdina izango bailitzateke. Ez baditu sartu, egoera horretarako ez dago krediturik aurrekontuan. Garrantzitsua da bozketa baino lehen adieraztea, bakoitzak jakin dezan zer bozkatzen ari den.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU), vuelve a insistir, en que no hay ningún inconveniente en hacer la valoración de puestos de trabajo, nadie está diciendo que no. Invita a todos a asumir ese compromiso pero solicita también que no se impida que su propuesta se lleve adelante. La valoración de puestos de trabajo supone un retraso y las fechas ya están puestas, hay que ser realista y una cosa no quita la otra. Su Grupo va a mantener su propuesta porque les parece la más coherente y quiere preguntar a la portavoz del PNV si en su propuesta ha tenido en cuenta los costes de la Seguridad Social o no porque la situación sería muy diferente. Si no han sido incorporadas se está hablando de una situación para la que no existe crédito presupuestario. Es importante señalarlo antes de la votación para que cada uno sepa qué es lo que está votando.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du aurreikuspenez ari direla eta izatekotan, ordezkapenak egiterakoan ez dela egongo aurrekonturik hartarako; eta kreditu-aldaketak egin beharko direla, beste gai batzuekin egiten den moduan.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que están hablando de previsiones y en todo caso cuando haya que asumir las suplencias...no habrá crédito presupuestario para aquello, habrá que afrontar modificaciones de crédito al igual que se hace con otras cuestiones.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du txostenak argi esaten duela EAJ/PNV taldearen proposamena, zenbatekoari dagokionez, legearen araberakoa izango dela Gizarte Segurantzaren kostuak barne hartzen baditu, bestela aurrekontuan ez litzatekeela kreditu nahikorik egongo gastu horri aurre egiteko. Zinegotziek jakin behar dute zer bozkatzera doazen, honek gero ardurak eragin baititzake.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que el informe lo establece de forma clara: “La propuesta del Grupo Municipal EAJ/PNV objeto del presente informe, en lo que a la cuantía se refiere, tendría encaje legal si en la misma se considerase incluidos los costes de cotización a la Seguridad Social, de lo contrario no existiría crédito presupuestario suficiente para acometer dicho gasto.”

Los Concejales tienen que saber lo que votan porque de aquí pueden luego derivarse responsabilidades.

* Peña andreak (EAJ/PV) adierazi du horregatik proposatzen zuela gaia mahai gainean uztea. EAJk ez du Udalaren aurrekontuaren I. kapitulua itoko eta ulertzen du Gizarte Segurantza sartuta dagoela. Iruditzen zaio kontu hori deigarria dela, hasierako proposamenean ez sartu izana eta erabakia hemen hartu behar izatea, aurreko kontsultarik gabe.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que por eso planteaba la necesidad de dejar el tema encima de la mesa. El PNV no va a ahogar el Capítulo I del Presupuesto Municipal y entiende que está incluído el tema de la Seguridad Social. Cree que es una cuestión cuando menos llamativa, la no inclusión en la propuesta inicial y que la decisión se tenga que tomar aquí sin una consulta previa.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du gauza bera gertatzen dela EAJk bezperan aurkeztutako proposamenarekin, kontu-hartzaileak eta idazkariak azkar jardun behar izan dutela. Argi utzi nahi du Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkeztutako proposamenean bozkatzen dela 450.000 euro ematea, Gizarte Segurantzaren kostuak sartuta.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que lo mismo ocurre con la propuesta que el PNV ha presentado con un día de antelación que requiere de una rápida intervención del Interventor y Secretaria. Quiere aclarar el voto de la propuesta alternativa presentada por el Partido Nacionalista Vasco, se vota la cantidad de 450.000 euros costes de Seguridad Social incluídos.

* Peña andreak (EAJ/PNV) berriro dio harrigarria iruditzen zaiola egoera eta galdetzen du gobernu-taldearen proposamenean sartuta zeuden Gizarte Segurantzaren kostuak.

*La Sra. Peña (EAJ/PNV) insiste en lo alucinante de la situación y pregunta si en la propuesta del Equipo de Gobierno estaban incorporados los costes de Seguridad Social.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du ezetz, eta horregatik proposatu zutela Gizarte Segurantzaren kostuak sartzea.

*El Sr. Alcalde (E.O. BILDU) responde que no y que por esa razón plantearon la incorporación de los costes de la Seguridad Social.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) adierazi du ez duela ulertzen zergatik ez den bozkatuko proposamenak mahai gainean geratzeko aukera. Idazkariari galdetuko dio Udalaren Araudi Organikoaren arabera proposamen hori mugatu daitekeen. Proposamena idatziz edo ahoz egin daitekeela. Bi taldek proposatu dute gaia mahai

*Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Socialistas – Socialistas Vascos) manifestando que no entiende porqué no se puede votar que las propuestas queden sobre la mesa. Solicita a la Secretaria que le diga si con el ROM en la mano se puede coartar esa propuesta. La propuesta puede ser por escrito o in voce. Dos Grupos han propuesto que se deje el tema



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gainean uztea.

encima de la mesa.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du gauza bat dela gaia mahai gainean uztea eta bestea erdibideko proposamen bat aurkeztea. Argitu beharko da bozketa bidez mahai gainean utz daitekeen.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que una cosa es dejar un tema sobre la mesa y otra presentar una propuesta transaccional. Habrá que aclarar si se puede dejar encima de la mesa por votación.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) adierazi du eztabaida prozesu guztian zehar sortuko dela, ahoz edozein proposamen egin daitekeela, idatziz edozer aurkeztu dela ere. Nahi du idazkariak esatea arrazoi duen ala ez.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak - Socialistas Vascos) , manifestando que en el debate que surge y durante todo el proceso, in voce se puede hacer cualquier propuesta independientemente de las que se hayan presentado por escrito. Quiere que la Secretaria le diga si está equivocado o no.

* Begoña Bueno idazkariak eskatu dio Rodriguez jaunari galdera errepikatzeko.

*Interviene la Secretaria Begoña Bueno solicitando al Sr. Rodriguez si puede repetir la pregunta.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) erantzun du mahai gainean hainbat proposamen daudela eta, zailtasunak daudenez, etenaldiaren ondoren eta ikusita hainbat talde politikok eskatu dutela gaia mahai gainean uzteko, galdetu du udal honetako araudi organikoaren arabera hori egin daitekeen.

*Responde el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak - Socialistas Vascos) manifestando que encima de la mesa hay una serie de propuestas, vistas las dificultades que existen, después del receso y visto que hay una petición de varios Grupos Políticos de dejar el tema sobre la mesa, pregunta si esto es posible con el reglamento del ROM de este Ayuntamiento.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du egin daitekeela, Udalaren Araudi Organikoaren 52. artikuluan xedatuta dagoela.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que es posible, el Art. 52 del ROM así lo establece.

* Ferradás jaunak (Errenteriako Ezkerra) adierazi du gogoratu nahi duela aurreko legegintzaldietan alkateak ematen zuela edo ez zuela ematen hitza, oposizioko taldeak alkateari zuzendu behar zitzaizkion eta hark erabakitzen zuen horrelako

*Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que quiere recordar que en legislaturas anteriores era el Sr. Alcalde el que daba o no la palabra, los Grupos de la Oposición debían dirigirse al Alcalde que era quien determinaba si se podía o no



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gauzak egin zitezkeen edo ez. Espero du aurrerantzean, orain oposizioan dagoena berriz ere gobernuan badago, kontuan izatea, batez ere memoria oso arina delako, komeni da areto honetan gertatutakoa gogoratzea.

hacer cosas de este tipo. Espera que en adelante si se da la circunstancia de que quien ahora está en la oposición, vuelva a ejercer labores de Gobierno, lo tenga en cuenta, sobre todo porque la memoria es frágil, es bueno recordar las cosas que han pasado en esta sala.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) adierazi du berak ere baduela memoria eta Ferradás jauna gonbidatu du hemerotekan begiratzera eta esan dituen gauzak gogoratzera. Lehenengo alkate jaunari eskatu dio, eta ezetz esan dionez, idazkariari zuzendu zaio, erregelamendu bat dagoelako indarrean, eta Ferradás jaunak ezagutu beharko luke. Ez badu behar bezala egin, barkamena eskatzen du, Udalaren Araudi Organikoa betetzeko dago.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que él también tiene memoria y le invita al Sr. Ferradás a mirar en la hemeroteca y a recordar las cosas que ha dicho. Primero se lo ha pedido al Sr. Alcalde y en vista de que ha dicho que no, se ha dirigido a la Secretaria porque existe un reglamento que el Sr. Ferradás debería de conocer porque es el que está en vigor. Si no lo ha hecho correctamente pide disculpas, el ROM está para cumplirlo.

* Idazkariak adierazi du baietz, 52. artikuluan aipatzen dela gaiak mahai gainean uzteko aukera eta ezartzen duela edozein zinegotzik eskatu ahal izango duela gai bat gai-zerrendatik ateratzeko, ezinbestekoak diren txostenak edo dokumentuak sartzeko edo nahikoa den beste edozein arrazoirengatik. Arrazoitu beharko litzateke zergatik utzi nahi den mahai gainean eta arrazoirik badago, alkateak gaia bozketara aterako du.

*Interviene la Secretaria manifestando que efectivamente el Art. 52, habla sobre dejar los asuntos sobre la mesa, establece que cualquier Concejal podrá solicitar retirar un asunto del Orden del Día, a fin de que se incorporen al mismo informes o documentos que sean esenciales o dejar un asunto sobre la mesa por un motivo que se estime suficiente. Habría que motivar el porqué dejar un asunto sobre la mesa y si existen motivos, el Alcalde sometería el asunto a votación.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak – Socialialistas Vascos) adierazi du eztabaida guztiaren ondoren, txostenak nola iritsi diren eta zenbat denbora izan duten... hori ez bada nahikoa, ez dakiela zer beharko den.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) para manifestar que después de todo el debate, de cómo han llegado los informes y del tiempo que ha habido, si eso no es suficiente, pues no sabe.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) galdetu du zer txosten behar diren. Galdetu du erabakia hartzeko txosten gehiago beharko dituzten.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) preguntando cuáles son los informes que necesitan. Pregunta si se estima que se van a necesitar más informes para

adoptar la decisión.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du Gizarte Segurantzako gastuak sartuta daudela ulertzen bada, kontuak egingo zituztela jakiteko zenbat izango den horretarako erabiliko den osagarria.

*Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que si se consideran incluidos los costes de la Seguridad Social, se habrán hecho unas cuentas que les permitan saber a cuánto va a ascender el complemento que se va a destinar a estos efectos.

* Zinegotziei banatu zaie gai horren inguruan egindako txostena.

*Se reparte entre los Concejales y Concejalas el informe elaborado en relación con el tema

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du kontuak 84.000-112.000 euro artekoak direla. Kopuru bat edo bestea izan, txostenak argi dio ez dela bideragarria. Txostena hor dago, galdetzen du beste zer behar duten erabakia hartzeko.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU), las cuentas varían entre 84.000 y 112.000, ahí están. Tanto en una cantidad como en la otra, el informe lo está diciendo claro, no es viable. El informe está, pregunta qué más quieren para poder adoptar otra decisión.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos) idazkariari eskatu dio berriz irakurtzeko, gauza bat edo bestea esaten duen.

*Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), solicita a la Secretaria que vuelva a leer, dice o, o una cosa u otra.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du ez bada txostenengatik, esateko zergatik utzi behar den mahai gainean.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que si no son los informes, que digan cuáles son los motivos que se estiman suficientes para dejar el tema sobre la mesa.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du gustatu edo ez, orain eman diotela bere taldeak egindako proposamenari eragiten dion txostena eta gerta daitekeela kapitulua negatiboan uztea. Bere taldeak txosten hori egiaztatu nahi du, behar bezala baloratu, erabakitzeko proposamena aldatu edo ez; iruditzen zaio egokia dela, ez du gehiago eztabaidatuko, nahi badu bozkatuko dute eta bestela ez.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que al margen de que les guste o no, en este momento se ha entregado un informe que afecta a la propuesta que ha hecho su Grupo Político y que puede condicionar el dejar el capítulo en negativo. A su Grupo le interesa contrastar este informe, la valoración en su justa medida a fin de modificar o no la propuesta, cree que es procedente, no va a discutir más, si se quiere que se vote y si no que no se vote.

* Alkate jauna (O.E. BILDU) Peña andreari zuzendu

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) se dirige a la

zaio, esateko osoko bilkuraren bezperan egin zuen proposamena 450.000 eurokoa zela eta txostenik gabe egin zuela. Gobernu-taldeak proposamen horren inguruko txostena eskatu zuen eta helarazi du. Orain, proposamena egin zuenean baino informazio gehiago du. Iruditzen zaio erabakia hartzeko arrazoi nahikoa dagoela.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du bitxia dela aipatzea proposamena txostenik gabe egin dutela, Batzordean aurkeztu zuten proposamenean ez baita aipatzen Gizarte Segurantzaren gastuei buruzko txostenik. Nahi badute mahai gainean geratuko da, eta ez bada bozkatzen, ez du inolako eragozpenik.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) galdetu du informazio nahikorik baduten erabakia hartzeko. Galdetu du beste zer informazio behar duten.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du osoko bilkuran jorratu denarekin arrazoi nahikoak dituztela mahai gainean uzteko eta Udalaren Araudi Organikoa nahiko argia dela horretan, eta guztien onerako, sindikatuen, langileen eta beraien onerako, mahai gainean utzi beharko litzatekeela. Gizarte Segurantzaren kontua ez dago argi eta ez da aipatu 30.000 euroko bariazioa dagoela, badirudi zenbateko bakar bat ere ez dela zehatza, kalkulatzen da, espero da, aurreikusten da... erretiro aurreratuagatiko primak, bestelako langile-gastuak, PPko bozeramaileak komentatutakoa... Iruditzen zaio ez zutela horraino iritsi behar, hasieratik eskatu dute gaia mahai gainean uzteko, azter dezaten; 5 minutu eman zaizkie horrelako erabaki bat hartzeko eta iruditzen zaio ez dela nahikoa. Hala eta guztiz ere, alkate jaunari iruditzen bazaio ez dela arrazoi nahikoa, bere

Sra. Peña manifestando que la propuesta que se ha hecho un día antes del Pleno, ha sido de 450.000 euros y se ha hecho sin informes previos. El Equipo de Gobierno solicita informe al respecto y lo traslada. En este momento, se cuenta con mayor información que cuando se hizo la propuesta. Cree que ya hay motivos suficientes para tomar una decisión.

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que es curioso que señale que se hace una propuesta sin informes, cuando la propuesta que se ha presentado en la Comisión no hay informe que haga referencia a los costes de la Seguridad Social. Si se quiere se deja encima de la mesa y si no se vota, no tiene ningún inconveniente.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU), pregunta si existe información suficiente para tomar una decisión. Pregunta qué más información necesitan.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que con lo que se ha tratado en el Pleno, hay más que razones suficientes para dejarlo encima de la mesa y además el ROM es bastante claro y por el bien de todas las partes, tanto la parte sindical, la parte de los empleados y la suya propia, se debería de quedar encima de la mesa. No solamente es el tema de la Seguridad Social que no está claro, hay una variación de 30.000 euros que no se cita y ninguna cantidad que aparece es concisa, se estima, se espera, se prevee...ni las primas por jubilación anticipada, ni otros gastos de personal, ni lo comentado por el Portavoz del PP... Cree que no tenían que haber llegado hasta ahí, desde el primer momento se ha pedido que se dejase el tema sobre la mesa para poder estudiarlo, se les ha dejado 5 minutos para tomar una decisión de este calibre y cree que es

taldeak berriro dio, Udalaren Araudi Organikoaren 52. artikulua betetzeko eskatzen du.

insuficiente. Si a pesar de eso el Sr. Alcalde considera que no es motivo suficiente, su Grupo sigue insistiendo y pide que se cumpla el ROM en el Artículo 52.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du Udalaren Araudi Organikoa argia izango dela baina talde sozialista ezetz; berriro dio, kexu dira bost minutu izan dituztela, baina talde sozialistak bilera hasi baino segundo batzuk lehenago banatu du paper bat, eta martxoaren 11tik izan dute horretarako denbora. Berriro dio, eskatzen die esateko beste zer elementu behar dituzten erabakia hartzeko; momentuz ez diote erantzun. Estimazioak egiten dituzte oraindik ez dakitelako zenbat erretiro aurreratu izango dituzten; kalkulatzen da aukera duten guztiek hartzen badute erretiro aurreratua gastua jakina izango dela, baina ez dakigu orain, eta hemendik hilabetera ere ez dugu jakingo. Berriro dio, jakin nahi du zer behar duten erabaki bat hartzeko.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que el ROM será claro pero el Grupo Socialista no lo es, insiste, se quejan de que han tenido cinco minutos pero el Grupo Socialista ha repartido un papel segundos antes de empezar la Sesión y han tenido tiempo desde el 11 de marzo para hacerlo. Insiste, solicita que le digan qué más elementos necesitan para tomar la decisión, de momento no ha tenido una respuesta. Hacen estimaciones porque todavía no saben que jubilaciones anticipadas va a haber, se estima que si se jubilan anticipadamente todos los que tienen esa posibilidad el gasto será de una cantidad determinada, pero esto no se sabe ni ahora ni se sabrá dentro de un mes. Insiste, quiere saber qué es lo que necesitan para tomar la decisión.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldeak esan duela, ez du errepikatu nahi.

*Interviene José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), manifiesta que su Grupo ya lo ha dicho, no quieren repetir.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du ez dela errepikatzea, nahikoa dela esaldi bakar bat. Zer behar duten.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que no es repetir, que le basta con una sola frase. Qué es lo que necesitan saber.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) galdetu dio alkateari zergatik eusten dion jarrera horri, sindikatuak ere aurka badaude.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) preguntando al Sr. Alcalde qué interés tiene, en mantener esa posición incluso teniendo en contra a la parte sindical.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du ez badira akordio batera iristen, egoera aztertuko dutela. Bere interesa da konpromiso bat betetzea eta 2015eko

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que si no se llega a un acuerdo, se estudiará la situación. Su interés es cumplir con un compromiso

lehen hiruhilekoan betetzea. Bere interesa langileekikoa da.

adquirido y ejecutarlo en el primer trimestre del 2015. Su interés es para con los trabajadores y trabajadoras.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du sindikatuak bere konpromisotik askatzen ari badira, ez duela ulertzen zergatik duen hainbesteko ardura.

*Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que si el enlace sindical le está liberando de su compromiso, no entiende porqué manifiesta tanta responsabilidad.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du Komiteko burua mintzatu dela, baina Batzordean beste ordezkari sindikal batekin hitz egin zuela eta hura ados zegoela proposamenarekin. Gobernu-taldeak proposatutakoaz bestelako proposamenik badago, bozkatzera atera dezatela, aurrera ateratzeko gehiengo nahikoa dute.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que se ha manifestado el Presidente del Comité, pero en la Comisión habló otro delegado sindical que estaba de acuerdo con la propuesta. Si existe otra propuesta diferente a la que plantea el Equipo de Gobierno que se lleve a votación, tienen mayoría suficiente para que salga adelante.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du amore ematen duela, jakin nahi du zer bozkatuko duten, BILDUren proposamena edo erdibideko guztiak biltzen dituena.

*Interviene el Sr. Herzog (PP), manifiesta que se rinde, quiere saber qué se va a votar, si la propuesta de BILDU o todas las transaccionales incluidas en la votación.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazten du erdibideko proposamena talde batek baino gehiagok sinatu behar duela, baina ez direla zorrotzak izango. Berriro dio, nahi du esatea zer txosten sartu behar diren edo arrazoi nahikorik badagoen. Idazkariari galdetu dio nork baloratzen duen arrazoiak nahikoak diren.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifiesta que una propuesta transaccional tiene que ir firmada por mas de un Grupo, pero no se van a poner estrictos. Vuelve a insistir, quiere que le digan qué informe hay que incorporar o si hay motivo suficiente. Pregunta a la Secretaria quién valora si el motivo es suficiente.

* Idazkariak adierazi du bere ustez argi eman behar direla arrazoiak eta alkateak erabakitzen duela arrazoiak nahikoak diren edo ez, eta horren arabera bozkatzen dela.

*Interviene la Secretaria manifestando que entiende que se tiene que expresar claramente la motivación, el Alcalde decide si esa motivación es suficiente o no y a partir de ahí se somete a votación.

* Alkate jauna (O.E. BILDU) Otegui jaunari zuzendu zaio, berriz hitza hartzeko asmotan baitzen. Alkateak adierazi du hau eztabaida politikoa dela, aretoko buru

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) dirigiéndose al Sr. Otegui que pretende intervenir de nuevo. Explica el Sr. Alcalde que este es un debate político, que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

den aldetik bi aldiz eman diola hitza. Orain bozketaren inguruko prozedura baten gainean eztabaidatzen ari dira. Berriro galdetu du dokumenturen bat sartzea nahi duten eta bestela zein den arrazoia, balora dezan mahai gainean geratzen den edo ez.

como Presidente de la sala le ha dado la palabra dos veces. En este momento se está debatiendo acerca de un procedimiento relacionado con la votación. Vuelve a preguntar a ver si hay algún documento que quieren que se incorpore y si no es así quiere saber cuál es el motivo para que pueda valorar si se deja o no encima de la mesa.

* José Angel Rodriguezek (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldeari interesatuko litzaizkiokeela PPko bozeramaileak eskatu duen txostena eta beste biak, baina zehatzagoak izan daitezela, hau itsumustuan egin baita.

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que a su Grupo le interesaría el informe que ha pedido el Portavoz del PP, más los otros dos pero que sean más concisos porque esto está hecho a vote pronto.

* Alazne Kortak (O.E. BILDU) adierazi du, lehenengo, txostena ez dela presaka egin. Bigarren, bakoitzak bere ardura hartu behar duela, hala sindikatuek nola oposizioak. Aurrez azterlanak egin dira; 334.000 euroen zifra ez da aleatorioa, 2014ko nominen gastuaren kalkuluaren emaitza da. Proposamen bat egin zen % 3 banatzeko, sindikatuekin erabaki behar da nola egingo den banaketa. Badirudi berdin dela zer proposatzen den, erantzuna beti ezezkoa da. Gogorra iruditzen zaio sindikatu bateko ordezkariari entzutea langileena den diru hori zakarretara botako dela. Flipatuta dago, norberak hartu beharko du bere ardura 350 langileen aurrean. Presarik ez, konpromisoa bai. Badirudi lau urtean lortu ez dena hilabete eta erdian lortuko dutela eta poz-pozik iritsiko direla akordio batera EAJko bozeramaileak auskalo nondik atera dituen 450.000 euro horiek banatzeko. Peña andreak lanpostuen balorazioa aipatu du eta horrek milioi bat euro, bi edo zero suposa dezake. Gerta liteke balorazioaren ondoren soldata-murrizketak egotea, Donostiako Udalean bezala. Galdetzen du zertaz ari diren, 450.000 euro aipatu dira, lanpostuen balorazioa kamuflatzen da,

Seguidamente pasa a tratarse la moción presentada por el el Grupo Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos que literalmente dice: “Los socialistas vascos abordamos el asunto del fracking desde dos ámbitos:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eta diru publikoaren defentsarenetik. Gure jardunaren helburua da ingurumena babestea edozein eraso-jardueratik, betiere kontserbazio-berme osoarekin egiten ez bada, eta iruditzen zaigu Euskadin diru publikoa arriskuan jartzeak frackingaren gaiari Estatuko beste leku batzuetan ez duen dimentsio publikoa ematen diola.

Horregatik, Talde Sozialistak Udalbatzari aurkezten dio mozio hau:

**M O Z I O A**

**1.- Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari frackinga esploratzeko baimenak geldiarazteko legegintzako herri-ekimena eztabaidatzen den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan hidrokarburoak erauzteko politika alda baitaiteke.**

**2.- Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari frackingaren gaia gardentasunez jorratzeko, herritarrek informazio guztia izan dezaten.**

**3.- Udalbatzak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari espazio babestuak defendatzeko ingurumen-politika bat egiteko, ingurunea mantentzeari emanez lehentasuna edozein aldaketaren gainetik, aldaketa hori burutzeko berme osorik ez badago."**

Ondoren, FRACKING EZ plataformak aurkeztutako mozioa irakurri dute; honela dio: "Hala ere, Fracking metodoen bidez (erautze prozesua naturarekiko oso bortitza da) bilatzeko dagoen bolada berri baten

el medioambiental y desde la defensa del dinero público. Nuestras actuaciones respecto al fracking pretenden proteger el medio ambiente de cualquier actividad agresiva con el mismo, sin las máximas garantías de preservación, y consideramos además que el hecho de que aquí en Euskadi se arriesgue el dinero público da al asunto del fracking una dimensión pública que no tiene en otros lugares del Estado.

Es por ello que el Grupo Municipal Socialista presenta al Pleno del Ayuntamiento la siguiente:

**M O C I O N**

**1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Vasco a paralizar los permisos para la exploración del Fracking mientras se debate la Iniciativa Legislativa Popular, ya que puede modificar la política de extracción de hidrocarburos en la Comunidad Autónoma Vasca.**

**2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Vasco a trabajar en el tema del Fracking en base a la transparencia, de forma que la ciudadanía tenga acceso a toda la información.**

**3. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Vasco a desarrollar una política medioambiental en defensa de espacios protegidos, primando la preservación del medio ante cualquier alteración, si no existen las máximas garantías para el mismo."**

Seguidamente pasa a leerse la moción presentada por la plataforma FRACKING EZ que literalmente dice: "No obstante, ante una nueva oleada de proporciones mundiales de búsqueda de gas con

aurrean aurkitzen gara. Berriz ere Euskal Herria lehentasunezko eremua bihurtu da. Ezberdintasuna, kasu honetan zulaketa horizontala eta etapa anitzen bidezko apurketa hidraulikoaren arteko konbinazioan datza (beste leku askotan ez ohiko gasaren ustiatzea ustez egingarri bilakatu dutena).

métodos cada vez más destructivos como es el Fracking, Euskal Herria parece ser un territorio preferente una vez más. La particularidad, en este caso, es la combinación de diferentes técnicas como la perforación horizontal y la fracturación hidráulica multietapa, que en otras partes del mundo ha hecho aparentemente viable económicamente la explotación de gas no convencional.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du, horren froga nabariena, SHESA (Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi S.A.), %100an diru publikoarekin dabilen enpresak, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izatea da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bain baimenik gehien biltzen dituena.

El Gobierno Vasco está convencido de las bondades de este nuevo sistema, y buena prueba de ello es que la empresa SHESA (Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi S.A.), con una participación de capital público al 100%,  es la principal promotora de los nuevos permisos de investigación de hidrocarburos que se están concediendo en nuestro territorio. No es la única empresa interesada, pero sí la que dispone más permisos.

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerekin eta horitako lehena, 2006an eman zen. “Enara” bezala deituriko baimena ezagunena bada ere, orain arte EAEn, emandako beste 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta onartzeko tramitean beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre). Baimen guzti hauek, EAE-ren zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

Este programa comenzó en el año 2005, con la solicitud de varios permisos, el primero de los cuales fue concedido en 2006. Aunque el más conocido de ellos es el permiso denominado “Enara”, a fecha de hoy en la CAPV nos encontramos con otros 11 permisos (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Miura, Usapal, Urraca, Geminis y Saia), además de otros 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia y Landarre) pendientes de ser concedidos. La suma territorial de todos estos permisos deja un panorama de afección amplio en toda la CAPV: 88% de Araba, 78% de Bizkaia y 40 % de Gipuzkoa.

Gaur egungo egoera, putzu askoren ustiatze baimena jada eskatua dagoela da eta horitako batzueri, Gasteizko Udalerriko Subilanan dagoen Enara-1en kasuan adibidez, zundatzen hasteko, udal lizentzia lortzea bakarrik geratzen zaie.

La situación actual es que los permisos para varios pozos de exploración han sido ya solicitados, y algunos de ellos, como el pozo Enara-1, localizado en Subijana, Municipio de Vitoria-Gasteiz, se encuentra solamente a falta de la licencia municipal para empezar a ser perforado.

Fracking bezala ezagutzen den teknikarekin zulatu diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira; hala nola, uraren eta airearen kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, inguruaren okupazio altua eta honen hondatzea edota putzuen inguruan bizi diren biztanleengan eta animaliengan osasun arazoak.

El desarrollo de estas técnicas conocidas abreviadamente como FRACKING en las zonas dónde han sido empleadas hasta ahora ha generado numerosos problemas que van desde la contaminación del agua potable y del aire hasta la aparición de movimientos sísmicos, pasando por una altísima ocupación y deterioro del entorno o por la aparición de problemas en la salud de los habitantes y animales cercanos a los pozos.

Fracking bultzatzen duten enpresa sustatzaileek, kasurik hoberenetan, indemninazioak banatu dizkiete kalteak jasandakoei, hots, arauak hausteagatik isunak ordaindu behar izan dituzte edo ura kutsatu duten zonaldetara, kamioi zisternen bidez, ur edangarria eramatera, legez, behartu dituzte.

Las empresas promotoras, en el mejor de los casos, se han dedicado a indemnizar a los afectados, a pagar multas por infracciones legales o a llevar agua potable en cisternas allá donde los pozos de agua dulce han sido contaminados, simplemente porque se han visto obligados a ello por ley.

Hainbat dokumentuk kezka hauek guztiak bermatzen dituzte. Osasunean eta Ingurumenean, frackingaren ondorio ezak kolokan jartzen dituzten ikerketa zientifikoak, edota haien lurraldeetan teknika hauek legeen bidez debekatzen dituzten estatuak (Frantzia eta Herbereen kasuan). Nabarmena da egun, teknika honen inguruan eztabaida handia dagoela bere arriskuak direla eta.

Numerosos documentos avalan estas preocupaciones; desde estudios científicos que cuestionan la inocuidad del fracking respecto a la salud humana y el medio ambiente, a territorios y estados como Francia y Países Bajos que prohíben el uso de estas técnicas en sus jurisdicciones. Es evidente que existe, a día de hoy, una fuerte controversia acerca de la utilización de estas técnicas debido a su peligrosidad.

Teknika honek sortu dituen arazoak direla medio, eta hauek udalerri honetan egoteko prebentzioan, mozio honen helburua, udalerri honen mugen barruan, teknika hau galaraztea da.

Ante los numerosos problemas que está generando el empleo de esta técnica, y en prevención de que los mismos se puedan presentar en este municipio, esta moción busca impedir que se realice en los límites de este municipio.

**Hau guztia kontutan izanik, Udalbatza honetan, akordio proposamen hau, eztabaidatua eta onartua izan dadin aurkezten dugu:**

**Teniendo en cuenta todo lo anterior, presentamos a este Pleno para su debate y aprobación, la presente propuesta de acuerdo:**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**1.- Orereta/Errenteriako Udalbatzak gure udalerrian SHESAk (Euskadiko Hidrokarburoak) edo beste edozeinek eskatu ditzazken, hidrokarburu ikerketa eta ustiaketei baimenik inoiz ez bideratzea.**

**2.- Orereta/Errenteriako Udalbatzak, udal Gobernuari, Frackingaren aurkako iritzia dela eta jarrera aktiboa hartzea, Orereta/Errenteria "Frackingetik aste dagoen Udalerri" izendatzea eta hori adierazten duen seinalea udalerriaren sarreran ezartzea eskatzen dio.**

**3.- Orereta/Errenteriako udalbatzari, gure herrian energia berriztagarria eta jasangarria erabiltzearen alde, politika aktiboak martxan jartzea eskatzen diogu.**

**4.- Frackingak dituen ondorio lazgarrien berri herritarrei helaraztea eta jakinaraztea."**

* Hauek mintzatu dira:

* Eneko Guridi jaunak (plataformako kidea) euskaraz adierazi du eskerrak eman nahi dizkiela hemen bildu diren guztiei eta baita ere bere mozioari atxiki zaizkion eragile sozial guztiei: Eguzki, Ekologistak martxan, Orereta/Errenteria Bizirik, Haritzalde Naturzaleen Elkartea, LAB, ELA, ESK, STEE-EILAS, GOT, CGT, UGT, Podemos, Equo, EHNE Gipuzkoa, Urdaburu Mendizale Elkartea, Galtzaraborda "Gure Leku" auzo elkartea, Gaztaño auzo-elkartea, Zamalbide/Bentak auzo elkartea, Agustinak auzo elkartea, Alabergako auzo elkarteko zuzendaritza, Saretuz proiektua eta Fracking Ez Gipuzkoa

**1. El Pleno del Ayuntamiento de Orereta/Errenteria solicita la no tramitación de permisos para la investigación y explotación de hidrocarburos en nuestro municipio que pueda solicitar SHESA (Hidrocarburos de Euskadi) o cualquier entidad.**

**2. El Pleno del Ayuntamiento de Orereta/Errenetria insta al Equipo de Gobierno Municipal a que, en consecuencia con el posicionamiento en contra del fracking, manifieste una posición activa con declaración de Orereta/Errenteria como "Municipio Libre de Fracking" y por ello, la colocación de una señal de "Fracking ez" a la entrada del Municipio.**

**3. Pedimos al Pleno de Orereta/Errenteria que ponga en marcha políticas activas a favor de la utilización de energías renovables.**

**4. Dar a conocer a la ciudadanía las consecuencias perjudiciales del Fracking."**

*Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera el Sr. Eneko Guridi miembro de la plataforma manifestando que quiere dar las gracias a todos los presentes y a todos los agentes sociales que se han adherido a la moción: Eguzki, Ekologistak martxan, Orereta/Errenteria Bizirik, asociación Haritzalde de defensa de la naturaleza, LAB, ELA, ESK, STEE-EILAS, GOT, CGT, UGT, Podemos, Equo, EHNE Gipuzkoa, asociación de montañismo Urdaburu, asociación de de vecinos de Galtzaraborda "Gure Leku", asociación de vecinos de Gaztaño, asoaciación de vecinos de Zamalbide/Bentak, asociación de vecinos de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

plataforma. Eskerrak eman nahi dizkie haiekin bildu diren alderdi politikoei ere, haiekin elkarbanatutako iritziek asko erakutsi dietelako. Udalbatza honetan aztertzea onartu duten mozioa era honetan hasiko dugu. Nahiz eta oraindik eskualdean lizentziarik eskatu ez den, frackingaren mehatxua bertan dugu, lurraldeko beste zenbait eskualdetan eskaera egin baitute. Euskal Autonomia Elkartean 11 baimen onartuak daude dagoeneko eta beste 6 onartzeke daude. Azken momentuko albiste bat izan da ustiatze lanak egin ahal izateko Enara1 eta Enara2ko baimenak soilik tramitatzen hasi dela Euskal gobernua, besteak oraingoz alde batera utziaz. Euskal gobernuak frackingaren teknikaren aurkako 100.000 sinaduratik gora jaso dituen arren, frackingaren aldeko apustua egitea erabaki du, herritar ororen nahiari izkin eginez. Beraien esanetan, bertan ditugu energia iturriei arreta berezia eskaini behar zaiela argudiatuz eta ustiaketak egiteko asmoa azalduz. Gauza bat argi dago, teknika honek emandako etekin ekonomikoak kanpotar batzuk jasoko lituzketela eta bertan bizi garenentzat hondamendi ekonomiko zein ekologikoa soilik geratuko litzatekeela. Eta ez gaude prest. Guk guretzat nahi ez duguna, ez diezaiegun besteei opa. Gure ustez, energia berriztatzaileetan dago etorkizuna, baina egia da zubi bat eman behar dela gaur egungo energia eta energia garbien artean, azken hauek gaur egungo eskaerak ez bailituzkete aseko. Horretarako munduaren energia eskaerak nabarmen egin beharko luke behera guretzako, bakoitzak erabat beharrezkoa dugun energia erabiliz. Kontzientziatzean dago ardatza, hemendik aurrera bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Eta, bukatzeko, gure helburuetako bat herritarrei ahalik eta informazio gehien helaraztea dela esan nahi dugu. Udalarekin batera hitzaldiak, frackingaren aldekoen eta kontrakoen arteko eztabaidak edo debateak, film emanaldiak eta abar luze bat

Agustinas, dirección de la asociación de vecinos de Alaberga, proyecto Saretuz y la plataforma Fracking Ez Gipuzkoa. Quiere dar las agracias a los partidos políticos que se han reunido con ellos, porque han aprendido mucho del intercambio de opiniones. Así comienzan la moción que se ha admitido tratar en este Pleno. Aunque en nuestra comarca aún no se haya solicitado ninguna licencia, tenemos aquí mismo la amenaza del fracking, ya que se han presentado solicitudes en otras comarcas. En la CAV ya se han aprobado 11 permisos y otros 6 están pendientes de aprobación. Ha sido noticia de última hora que el Gobierno Vasco ha comenzado a tramitar únicamente los permisos para los trabajos de explotación de Enara1 y Enara2, el resto de momento se quedan aparcadas. El Gobierno Vasco, aún habiendo recibido más de 100.000 firmas en contra de la técnica del fracking, ha decidido apostar por esta técnica, dando la espalda al sentir de toda la ciudadanía. Según ellos, debemos prestar mayor atención a las fuentes de energía de las que disponemos y ha manifestado la intención de realizar explotaciones. Una cosa está clara, los posibles beneficios económicos de esas técnicas revertirían en gente de fuera y lo único que nos quedaría a los locales sería el desastre económico y ecológico. Y no estamos dispuestos a ello. Lo que no queremos para nosotros no se lo deseamos a nadie. En nuestra opinión, el futuro pasa por las energías renovables, pero es cierto que en la sociedad actual tenemos que tender puentes entre las energías actuales y las energías limpias, ya que estas últimas no son suficientes para responder a las demandas actuales. Para que fueran suficientes, la demanda de energía debería descender mucho en nuestra opinión, llegando a utilizar únicamente la energía estrictamente necesaria. La clave es la conciencia; que de aquí en adelante cada uno saque sus conclusiones. Y para terminar, queremos manifestar que uno de nuestros objetivos es ofrecer la

proposatuz. Besterik gabe, eskerrik asko denei.

mayor cantidad de información posible a la ciudadanía. Proponemos organizar en colaboración con el Ayuntamiento charlas, debates entre partidarios y detractores del fracking, proyecciones de cine y un largo etcétera. Sin más, gracias a todos.

* Ferradás jauna (Errenteriako Ezkerra) labur jardungo da, bere garaian ere izan zutelako eztabaida hori eta ez duelako gauza gehiegirik erantsiko. Ia desagertu da energia berriztagarrien sektorea eta badakigu horrek enpleguaren arloan zer eragiten duen egungo egoeran. Oraingo gobernua Auzitegi Gorenera eta Konstituzio Auzitegira eramaten ari da parlamentu autonomikoek fracking-prospekzioen aurka egindako adierazpenak, baina, aldi berean, atzeko atetik ekonomikoki babesten ditu prospekzio horiek baimentzen dituzten autonomiak eta udalerriak. Plataformako bozeramaileak adierazi duen moduan, Arabako sei udalek uko egin diote obrak egiteko lizentziak emateari, eta pozgarria da herritarren kontzientziak aurrera jarraitzea, eta borondateak pizgarri ekonomikoekin erosten saiatzen diren arren, iruditzen zaio asmo horrek ez duela arrakastarik izango eta halaxe espero du, ez Euskal Herrirako soilik, baizik Estatu osorako.

*Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) quiere ser breve porque es un debate que ya tuvieron en su día y no va a añadir grandes cosas. Prácticamente se ha eliminado el sector de energías renovables con lo que ello conlleva de empleo posible en la actual situación. El actual Gobierno está llevando al Tribunal Supremo y al Tribunal Constitucional declaraciones de Parlamentos Autonómicos en contra de las prospecciones de fracking pero a la vez aprueba por la puerta de atrás incentivar económicamente a aquellas autonomías y a aquellas localidades donde autoricen las prospecciones de fracking.. Como bien ha señalado el portavoz de la plataforma seis ayuntamientos de Álava se han negado a conceder las licencias para que se realicen las obras y solo cabe felicitarse de que la conciencia ciudadana siga avanzando y a pesar de que se intente comprar con incentivos económicos las voluntades, cree que es una misión condenada al fracaso y espera que así sea, no sólo en Euskal Herria sino en el conjunto del Estado Español.

* Herzog jaunak (PP) adierazi du naturari eraso ugari egin izan zaizkiola ezjakintasunagatik, ez ezagutzeagatik hurrengo belaunaldiek jasango dituzten ondorioak: intsektizida gisa erabili ziren produktu bentzenikoak, guztiek gogoan duten diazinona, amiantoa, lurreko metal astunak, berunezko perdigoiak, meatzaritzako baltsak, dioxinak, uranoak, hondakin nuklearrak, arautu gabeko baso-soiltzeen ondoriozko desertifikazioa.

*Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que son múltiples los ejemplos de agresiones a la naturaleza causadas por ignorancia, prematuramente y con desconocimiento de los efectos que a posteriori causarían y que tienen que padecer las siguientes generaciones como: abundancia de productos bencénicos que fueron usados como insecticidas, como el GammaHexano (Lindane) primero y después el Diazinón y el Almitraz del que tienen cercanos

Etorkizuneko belaunaldientzako ondorioak izan dituzten naturako manipulazio gogor horiek erakutsi behar digute ezin dela teknika berri bat erabili jakin arte naturan zer ondorio izango dituen. Gipuzkoako Alderdi Popularra eta Errenteriakoa frackinga erabiltzearen aurka daude, bortitza delako eta orain eta etorkizunean izango dituen ondorioak ezin direlako aurreikusi, gutxienez azterlan zehatzek egiaztatzen duten arte ondorengoei ez zaiela arazorik eragingo.

recuerdos, amianto, metales pesados en el terreno, perdigones de plomo, balsas de minería, dioxinas, furanos y policlorobifenilos, residuos nucleares, así como desertización por deforestaciones no reguladas. Estas lecciones que nos han dado anteriores manipulaciones violentas en la naturaleza que han dejado secuelas para generaciones futuras nos tienen que enseñar que no se puede abordar una nueva técnica hasta que no se sepan las consecuencias que va a tener el manejo de la naturaleza que se vaya a hacer. El Partido Popular de Gipuzkoa tanto como el de Errenteria están radicalmente en contra del uso del fracking por violento y sus resultados imprevisibles ahora y en el futuro, al menos, hasta que se tengan unos estudios rigurosos y contrastados que aseguren que no se originen problemas a los que les suceden.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du lehenengo eskerrak eman nahi dizkiola plataformari beraiekin biltzeagatik, iritziak trukatzeko aukera izan dutelako, gai guztietan ados ez egon arren beti aberasgarria baita. Hasieran, bere taldeak lehen mozioa soilik zuen, mozio alternatiboa ez da azaldu. Ez du hitza bi aldiz hartu nahi eta bere iritzia adieraziko du; bere asmoa zen abstenitzea, beste batzuetan egin izan duten moduan. Hirugarren puntuaren alde daude bereziki, energia berriztagarrien aldeko politika aktiboak abian jartzearen alde. Laugarren puntuari dagokionez, frackingaren ondorio kaltegarriak herritarrei ezagutaraztea, bere taldeari iruditzen zaio positiboagoa dela frackingari buruzko informazioa ematea, aldez aurretik jarrerarik hartu gabe. Bere alderdiaren egungo jarrera da, bihar ez daki zein izango den, esplorazioa bai, ustiapena ez; horrela, bada, iruditzen zaie plataformaren proposamena aurreregi doala eta, ildo horretan, Alderdi Sozialistak proposatutako mozio alternatiboa iritsi zaie, eta hobe bat egiten du Euzko Alderdi Jeltzaleak gai honetan duen politikarekin. Lehenengo, frackingerako

*Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que primeramente quiere agradecer la actitud que ha tenido la plataforma de reunirse con ellos, así se ha podido intercambiar opiniones y aunque no se coincida en algunos puntos, siempre es productivo. Al inicio su Grupo solo tenía la primera moción, la moción alternativa no ha sido explicada. No pretende hacer doble uso de la palabra y se va a posicionar, su planteamiento era el de la abstención como han hecho en otras ocasiones. Especialmente están a favor del punto tercero, el que se pongan en marcha políticas activas a favor de energías renovables. En cuanto al punto cuarto, dar a conocer a la ciudadanía las consecuencias perjudiciales del fracking, su Grupo entendía que era más positivo que se trasladara a los vecinos y vecinas información sobre el fracking sin predisponer. La posición de su Partido hoy, mañana no lo sabe, sí exploración no explotación, por tanto entienden que la propuesta de la plataforma va unos cuantos pasos por delante y en ese sentido les ha llegado la moción alternativa que planteaba el Partido Socialista y encaja mejor con la política que está

esplorazioko baimen guztiak geratzea, legegintzako herri-ekimena eztabaidatzen den arte eta gardentasunez lan egitea, herritarrek informazioa izan dezaten, bai gai honetan, bai beste edozeinetan. Udalbatzari eskatzea ingurumeneko politikak egin ditzan espazio babestuak defendatzeko; hori plataformak aurkeztutako mozioaren hirugarren puntuaren maila berean jartzen du. Ez daki mozioa puntuz puntu bozkatu ahal izango den, bere taldea plataformaren hirugarren puntuaren eta Alderdi Sozialistaren mozio guztiaren alde azalduko da, eta iruditzen zaionez ez dela koherentea biak aurrera ateratzea, gainerako puntuen aurka bozkatuko luke, koherentziagatik, eta beste mozioaren alde, hobe erantzuten diolako bere taldearen iritziari.

manteniendo el Partido Nacionalista Vasco en esta cuestión. Primero paralizar todos los permisos de exploración del fracking mientras no se debata la iniciativa legislativa popular y el trabajo en base a la transparencia de forma que la ciudadanía tenga acceso a la información, en este y en cualquier otro tema. Instar a este Pleno a que se desarrollen políticas medio ambientales en defensa de espacios protegidos, lo sitúa al mismo nivel que el punto tercero de la moción presentada por la plataforma. No sabe si será posible votar punto a punto la moción, su Grupo se posicionará a favor del tercer punto de la plataforma y a favor del conjunto de la moción del Partido Socialista y como cree que no es coherente que salgan las dos votarían en contra de los otros puntos por coherencia y a favor de la otra moción ya que responde mejor a la posición de su Grupo.

* Alkate jaunak barkamena eskatu dio Talde Sozialistako bozeramaileari, logikagatik berari legokiokeelako hitza hartzea eta pasatu egin zaiolako.

*Interviene el Sr. Alcalde para pedir disculpas al Portavoz del Grupo Socialista, porque por lógica, le tenía que haber dado antes la palabra y se le ha pasado.

* José Angle Rodriguezek (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eskerrak eman dizkie plataformako kideei, bereziki Enekori eta Karlosi. Oso ondo dakite zein den Alderdi Sozialistaren jarrera, hitz egin zutenean azaldu zietelako, azaldu zieten mozioa ere zergatik aurkeztu duten. Aurrekotik hona, txostenek eta prospekzioen emaitzek erakusten dute aldaketa gertatu dela. Bere taldeak gai hau bi esparrutatik jorratzen du, ingurumenetik eta interes ekonomiko publikoen defentsatik. Bere taldearen asmoa da ingurumena babestea, mozioaren azalpen zatian esaten den moduan, edozein eraso-jardueratik, kontserbazio-berme osorik gabe egiten bada. Beren ustez Euskadin diru publikoa arriskatzeak frackingaren kontuari dimentsio publikoa ematen dio,

*Interviene el Sr. José Angel Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) agradeciendo a los miembros de la plataforma, en concreto a Eneko y Carlos con los que ha estado charlando. Saben perfectamente cual es la posición del Partido Socialista porque se lo explicaron, explicaron también el porqué de la moción, la presentación de la moción. De la vez anterior a esta, los informes que están apareciendo y los resultados de las prospecciones muestran que se ha producido un cambio. Su Grupo aborda este asunto desde los dos ámbitos, el medio ambiental y el de la defensa de los intereses económicos, públicos. Su Grupo pretende proteger el medio ambiente como bien se dice en la moción en la parte expositiva de cualquier actividad agresiva con el

Estatuko beste leku batzuetan gertatzen ez den bezala. Oraintxe bertan mahai gainean jartzen dutena da bere taldeak eta bere alderdiak adierazitakoa hainbat gobernu autonomiko eta Estatuko bera lantzen ari direna oinarri hartuta.

mismo y sin las máximas garantías de preservación. Consideran que en Euskadi se arriesgue el dinero público da al asunto del fracking una dimensión pública que no tiene lugar en otros lugares del Estado. Ahora mismo lo que ponen encima de la mesa es lo que desde su Grupo y lo que desde el Partido les indican en base a lo que están trabajando los diferentes Gobiernos Autonómicos y el Estatal.

* Díez jaunak (O.E. BILDU) herri-ekimena aipatu du eta hasiera 2011n kokatu du. Hiru urte inguru daramatzate sinadurak biltzen; Araban hasi ziren, han hasi baitziren prospekzioekin. 103.000 sinadura inguru bildu ziren; 2014ko irailaren 13an Eusko Legebiltzarren aurkeztu zen herri-ekimena, frackinga debekatzen duen legea egin dadin eta metodo honen bidez ohikoak ez diren hidrokarburoak bilatzeari uzteko, gure ingurunearentzako eta gure osasunerako arriskutsua delako. Urte bereko abenduaren 4an, herri-ekimena izapidetzea onartu zuten Eusko Legebiltzarreko alderdi guztiek aho batez. Legebiltzarreko Mahaiak, Euzko Alderdi Jeltzalearen ekimenez eta Alderdi Popularraren babesarekin, onartu zuen zenbait agerraldi egitea, bere ustez gai honi buruzko eztabaida udal-hauteskundeen ondorenera arte atzeratzeko. 2015eko martxoaren 2an Legebiltzarrean agerraldia egin zuten Mikel Oterok eta Iñigo Lezak legegintzako herri-ekimenaren 103.000 sinaduren ordezkaritzan; ekimen horretako kide batzuk gaur hemen daude proposamena aurkezten. Bere taldeak ez ditu aipatuko frackingak osasunean eragiten dituen arazo guztiak, New York hiriko Osasun Sailak egin du hori. 4.000 ordu baino gehiagoko azterlan bat burutu dute osasun publikoaren eta sektore erradiaktiboaren arloko 20 adituk. 2014ko abenduaren 17an txosten bat argitaratu zuten eta ondorioa izan zen osasun publikoko txosten horretako informazioak frogatzen duela ziurgabetasun handiak daudela frackingak

*Interviene el Sr. Díez (O.E. BILDU) hace referencia a la iniciativa popular y sitúa sus orígenes en el año 2011. Llevan unos tres años recogiendo firmas, empiezan en Álava que es donde empiezan a hacer las prospecciones. Se llegan a recoger alrededor de 103.000 firmas, el 13 de septiembre de 2014, presentan en el Parlamento Vasco la iniciativa legislativa popular, con el fin de desarrollar una ley que prohíba el uso del fracking y se abandone la búsqueda de hidrocarburos no convencionales con este método por el riesgo que supone para nuestro entorno y nuestra salud. El 4 de diciembre del mismo año se admite a trámite la iniciativa popular con unanimidad  de todos los partidos en la Cámara Vasca. La Mesa del Parlamento a iniciativa del Partido Nacionalista Vasco y con el respaldo del Partido Popular aprueba el inicio de una serie de comparecencias con el objetivo, a su entender, de retrasar hasta después de las elecciones municipales el debate sobre este tema. El 2 de marzo del 2015 comparecieron en el Parlamento Mikel Otero e Iñigo Leza en representación de las 103.000 firmas que presenta la ILP, estando algunos de sus miembros hoy en el Pleno presentando su propuesta. Lo que no va a hacer su Grupo es un repaso de todos los problemas que genera el fracking a nivel de salud, esto ya lo ha hecho el Departamento de Salud en la ciudad de Nueva York. Existe un  estudio de más de 4.000 horas llevado a cabo por más de 20 especialistas en el sector de la salud pública y en el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

osasunean dituen eragin kaltegarrien, horiek gertatzeko probabilitatearen eta osasunaren eta ingurumenaren gaineko kalteak prebenitzeko hartzen ari diren neurrien inguruan. Zientifikoki zehazten ez den arte New Yorkeko biztanleentzako arriskua eta zehazten ez den arte arrisku horiek ondo bidera daitezkeen, ez da egokia New York estatuan frackinga egitea. Txosten hori irakurri ondoren, New Yorkeko politikariek erabaki dute frackinga debekatzea. Jakitekoa da azterlana burutzen zen bitartean ez dela zulaketarik egin. Beste estatu batzuk bide bera jarraitzen ari dira Estatu Batuetan eta Europan, debekatua dago Frantzian, Herbehereetan, Suitzan eta Bulgarian. Alemanian luzamendua dago eta Ingalaterran, Eskozian eta Irlandan zalantza handia dago eta eskatzen ari dira frackinga egiteko aukera eteteko. Europan diru xahutzearen adibide da Polonia, teknikariek esaten zuten 300 urtetarako gasa zegoela. Poloniako Gobernuak alfonbra gorria jarri zien fracking bidez gasa ateratzen zuten enpresa guztiei eta, lau urte geroago, 2015ean, 63 putzu zulatu dituzte, hiritariko 13tan frackinga egin dute eta 13tatik bakarrean soilik aurkitu dute hau guztia errentagarria izateko beharrezko gas-kopuruaren % 30. Emaitzak ikusita, enpresek atzera egin dute, eta ez da ahaztu behar horrek herrialdeari suposatu dion gastua. Hemendik gertuago, Castellonen, Castor proiektua dugu. Koltxoi-gasa injektatzen denean 400 inguru lurrikara txiki eragiten dira; arriskua ikusirik, proiektua bertan behera geratu zen. ACS enpresa emakidadunak klausula bat zuen eta Gobernu Zentrala behartuta zegoen 1300 milioiko kalte-ordaina ematera. Gobernuak Gas Natural Fenosari ordainarazi zion eta enpresak zergadunei ordainaraziko dizkie 30 urtetan %4,27ko interesak, Castor proiektuaren desastrea ordaindu ahal izateko. Orduan sortu zen galdera zen ez ote zegoen txostenik arriskuen berri ematen zuenik, eta txosten tekniko bat bazegoen, baina ez

sector radiactivo. El día 17 de diciembre de 2014, publican un informe siendo ésta la conclusión: “El cuerpo de la información de este informe de salud pública demuestra que hay incertidumbres significativas sobre los efectos nocivos en la salud del fracking, incertidumbres sobre la probabilidad de su ocurrencia y sobre las medidas de mitigación que se están tomando para prevenir los daños a la salud y al medio ambiente. Mientras no se determine científicamente el alcance del riesgo para los habitantes de Nueva York y se determine si estos riesgos pueden ser manejados convenientemente no procede realizar el fracking en el Estado de Nueva York.” Tras la lectura de este infome, los políticos y las políticas de Nueva York han decidido prohibir la práctica del fracking. Hay que saber que mientras se ha llevado a cabo el estudio no se han realizado perforaciones. Otros Estados están siguiendo el mismo camino en Estados Unidos y en Europa. Está prohibido en Francia, Países Bajos, Suiza y Bulgaria. En Alemania existe una moratoria y en Inglaterra, Escocia e Irlanda hay un cuestionamiento popular importante y se está pidiendo la paralización de la posibilidad de realizar fracking. Como ejemplo de derroche económico en Europa tienen a Polonia, los técnicos decían que había gas para 300 años. El Gobierno de Polonia puso la sombra roja a todas las empresas que se dedicaban a sacar gas por vía fracking, y cuatro años después en el 2015 han perforado 63 pozos, de ellos en 13 se ha realizado fracking y de los 13 solo en uno de ellos han encontrado el 30% de la cantidad de gas que sería rentable para poder llevar esto a buen puerto. Vistos los resultados, las empresas se han retirado, todo esto sin olvidar el costo que ha supuesto para el país. Más cerca de casa en Castellón, el proyecto Castor. Cuando se inyecta el gas colchón se generan alrededor de 400 mini terremotos, al ver el riesgo evidente que existía el proyecto terminó



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

zion mugimendu sismikoen arazoari erreferentziarik egiten. Talde ekologistek eta alderdi politikoek ohartarazi zuten arriskuen inguruan, baina ez zitzaien haien alegazioei kasurik egin, eta gero guztiek jakin zuten zer gertatu zen eta zer ondorio izan zituen. Momentuz ez dakigu zer gertatuko den, baina Castelloko fiskaltzak sare administratiboko 18 pertsona inputatu ditu prebarikazio-delituan. 2014ko irailean, Meatzaritzako Institutu Geologikoak txosten bat egin zuen frackingaren inguruan ohartarazteko eta adierazten dute txostena egin dutela ez dutelako nahi Castellokoa bezalako ezbeharrik gertatzerik. Ondoren, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako sailburuak txosten ofizialaren ondorioak ezetsi zituen, esanez kasu puntualak eta apartekoak hartu dituela oinarri eta gainera ez direla egungo teknikaren errealitatearen adierazgarri. Albaceten ere lurrikara bat gertatu zen, Ossa de Montielen, Richter eskalan 5,2koa. Ezin da esan lurrikara frackingak eragin duenik, zulaketarik ez delako egin, baina inguruan zulaketak egiten ari dira eta baimenak eman dituzte lurrikararen epizentroa izan den eremuan zundaketak egiteko. New Yorkeko Osasun Sailak gomendatzen duen kautela- eta arreta-printzipioari eutsita, bere taldeak esploraziorako baimenik ez tramitatzeko proposamenarekin bat egiten du, nahi dute herria “FRACKING EZ” herria izatea eta frackingik gabeko udalerrien sarean sartzea.

paralizándose. La empresa concesionaria ACS, tenía una cláusula que obligó al Gobierno Central a pagar 1.300 millones de indemnización. El Gobierno se lo endosa a Gas Natural Fenosa y lo que hace la empresa es repercutir sobre los contribuyentes durante 30 años intereses del 4,27% para poder pagar el desastre que supuso el proyecto Castor. La gente se preguntó entonces por la existencia de informes que alertaran de los peligros y evidentemente existió un informe técnico pero que en ningún momento hacía alusión a algún problema de movimientos sísmicos. Grupos ecologistas y Partidos Políticos alertaron sobre los riesgos pero no se hizo caso a sus alegaciones, luego todo el mundo supo lo que ocurrió y cuáles fueron las consecuencias. No se sabe de momento lo que va a pasar pero la fiscalía de Castellón tiene a 18 personas del entramado administrativo imputados en un delito de prevaricación. En septiembre de 2014 el Instituto Geológico Minero emite un informe que alerta de la práctica del fracking en el que manifiestan que hacen el informe porque no quieren que ocurra otra desgracia como la de Castellón. Realizado el informe la Consejera del Gobierno Vasco Arantxa Tapia desautoriza las conclusiones del informe oficial que alerta contra el fracking diciendo que están basadas en casos puntuales y excepcionales y además no son representativos de la realidad técnica actual. Existe otro caso que es el de Albacete donde se ha producido un terremoto, concretamente en Ossa de Montiel, 5,2 en la escala Richter. No se puede decir que la culpa del terremoto la haya tenido el fracking porque no se ha dado, pero alrededor se están llevando a cabo perforaciones y existen permisos para poder sondear en la zona del epicentro del terremoto. Siguiendo el principio de cautela y precaución que recomienda el Departamento de Salud de Nueva York, su Grupo se adhiere a la propuesta de no tramitar permisos para la

exploración, quieren que su pueblo sea “NO FRACKING” y sumarse a esa red de municipios libre de fracking.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) adierazi du mozioa puntuz puntu bozkatzeko proposamen bat egon dela, eta aurkeztu dutenei zuzentzen zaie horren inguruan erabaki dezaten.

*Interviene el Sr. Alcalde (O.E. BILDU) manifestando que ha habido una propuesta de votar la moción punto por punto y se dirige a los miembros que la han presentado para que decidan al respecto,

* Karlos Muruak alde batetik eskatu dio Alderdi Popularrari egungo jarreratik frackingaren guztiz kontrakoak diren jarreretarako trantsizioa lehenbailehen egiteko. Bestalde, Alderdi Sozialistari eta EAJri esan nahi die hausnarketa egin nahi dutela Udalbatzak Alkateen itunaren eta berotegi efektuko gasen igorpena % 20 murrizteko, % 20ko efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien erabileran % 20ko tasa gainditzeko betebeharraren inguruan. Hausnarketa egin beharko litzateke eta erabaki frackingaren teknikak helburu horietara hurbiltzen dituen edo aldendu egiten dituen, eta iruditzen zaio komeni dela kontuan izatea, lehen aipatutako helburuak beteko dituztela ere sinatu baitute. Kautela- eta zuhurtzia-printzipioa aipatu dute, eta argi dute, kautela eta zuhurtzia edo arrisku kontrolatua, eta azken horrek badakigu zer dakarren, Fukushima eta beste hainbat egoera, ez dago erantzulerik, pertsona asko hil dira arriskua kontrolatua izan arren, esaten zuten zentral nuklearrak seguruak zirela. Ildo horretan, nahi du hausnarketa egin dezaten eta erabaki dezaten zein irizpide aplikatu nahi dieten herritarrei.

*Interviene el Sr. Karlos Murua por una parte pide al Partido Socialista que el tránsito que tiene que hacer desde la posición actual hasta posiciones abiertamente contrarias al fracking, que lo haga cuanto antes. Por otro lado se dirige al Partido Socialista y al PNV, quiere hacer una reflexión sobre el acuerdo que tomó la Corporación en cuanto al pacto de Alcaldes y la obligación de superar el 20% en la reducción de emisión de gases invernadero, el 20% en eficiencia energética y el 20% en el uso de energías renovables. Habría que reflexionar y determinar si la técnica del fracking les acerca o les aleja de esos objetivos, cree que es conveniente tenerlo en cuenta puesto que se ha firmado también cumplir los objetivos anteriormente citados. Se ha hablado del principio de cautela y prudencia y lo tienen claro o la cautela y la prudencia o el riesgo controlado y este último ya lo conocemos, Fukushima y otras situaciones en las que no existen responsables, mueren personas a pesar de que el riesgo está controlado, las centrales nucleares decían que eran seguras. En este sentido quiere que se reflexione y que decidan cuál es el criterio que quieren aplicar a la población.

* Peña andreak eskatu du puntuz puntu bozkatzeko.

*Interviene la Sra. Peña solicitando que se vote punto por punto.

* Murua jaunak adierazi du berak ez duela

*Interviene el Sr. Murua manifestando que aunque no



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

eragozpenik baina talde askok aurkeztu dutela mozioa eta guztiak ez daudenez aretoan, ez zaio iruditzen ezer aldatzeko ahalmenik duenik.

tiene inconveniente, son muchos los grupos que presentan la moción pero no están todos presentes y no se siente capacitado para modificar nada.

* Alkate jaunak (O.E. BILDU) euskaraz adierazi du ez duela esan baina Karlos Murua zela hizketan ari zena, aktan jasota gera dadin.

*Interviene en euskera el Sr. alcalde (O.E. BILDU) manifestando que no se ha identificado, pero que se trataba de Karlos Murua, para que se recoja en acta.

* Luis Mari Díez jaunak (O.E. BILDU) adierazi du pozten duela Herzog jauna entzuteaz bere alderdiaren norabidearen aurka egiten. Peña andreari galdetu nahi dio nola egingo dituzten esplorazio-azterketak frackingik erabili gabe. Esplorazioa bai, baina esploratzea arriskutsua iruditzen zaio, bi ahoko ezpata erabiltzen ari da EAJ. Alderdi Sozialista bere jarrera aldatzen ari da, oraindik ikusten du Patxi Lopez kaskoa jantzita Texasen, franckingean inbertituko zuen lehena izango zela esanez; Sozialisten adierazpenak entzun eta aldaketa ikusteak pentsarazi dio aurrera egiten ari direla eta zentzu onera itzultzen ari garela, baina ezin gauza bera esan EAJrekin. Alvaro Iturriza Gasteizeko zinegotziak esan du esplorazioa ez dela ustiapena sartzeko Troiako zaldia besterik. Uka dezagun lizentzia soziala, jo dezagun zuhurtasun-printzipiora eta behar ditzagun ardura publikoa dutenak alde edo kontra azaltzera eta azalpenak ematera. Gasteizko Udaleko EAJko zinegotziak esan du hori, hauteskunde-kanpainan. Gorka Urtaran, 2011ko hauteskundeetako EAJko hautagaia: Nire alderdiari eskatu diot anbiguotasunak alde batera uzteko frackingari dagokionez, argi esateko gasa erauzteko teknika ez konbentzional honen aurka dagoela. Aipatu dut frackinga ez dela bateragarria ingurumena kontserbatzearekin, osasunarekin eta gure lurralde-ereduarekin. Gai hau garrantzitsua da eta jarrera politikoa argia izan behar da. Urkullu, Arantxa Tapia... Euzko Alderdi Jeltzalea anbiguotasunean aurrera eta

